

A S T E K O L I B U R U A

DONOSTIA, LITERATURA BATEN HIRIA



**DONOSTIA.
HIRI BAT
LITERATURAN**
Batzen artean
ALBERDANIA
173 orrialde
11 euro

Koldo Izagirrek bildu dituen literatur pasarte hauen antologiaren izen zehatza "Donostia. Hiri bat literaturan. Literatura baten biria" da, eta hain zuzen horrexek elkartzen ditu Euskararen Donostia Patronatuaren laguntzaz Alberdania argitaletxean plazaratu diren 34 idazleak eta 54 testuak. Donostia hiria daukate denek beren lanen ardatz edo kokaleku, nahiz bestelakoan batzuek besteengandik ezberdintasun nabariak izan. 1909an Emeterio Arresek Habanan idatzitako "Arratsaldean" poematik hasiz, XXI. mendean Ramon Saizarbitoriak idatzizako "Ros-

settiren obsesioa"raino, idazlan ugarik izan du Donostiarekin lotura. Besteak beste, Ramon Intzigararen "Donosti atalak", Agustin Anabitarteren "Goiz hartan", Jean Etxepareren "Berebilez", Orixeren "Estropadak", Nemesio Arizmendiren "Faxistak Donostian", Joseba Zubimendiren "Donosti gaxoa", Antonio Valverderen "Zuloaga plaza", Jose Anjel Irigarayren "Errandoren amodiozko ametsa", Joan Mari Irigoienen "Altza", Joxe Austin Arrietaren "Manu militari", Txillardegiren "Haizeaz bestaldetik" edota Arantxa Urretabizkaiaren "Saturno" k.

▼ Egileari Galdezka

"Donostia eta euskara lotura natural bat da"



Koldo Izagirre

■ "Hiri bat literaturan. Literatura baten hiria" diozu. Arrazoia?

Ez da hitz joko hutsa. Euskal literaturaren borroka, urtetan eta urtetan, menditik kalera egin beharra izan da. Kaletartu nahi genuen, literatura urbano eta moderno bat egin, XX. mendeari zegozkion kezkekin eta urradurekin. Eta hori Donostian gertatu da, Donostiak duen geografia bereziari esker, baina baita bere biztanle euskaldunei esker ere.

■ Antologiako egile guztiak ez dira donostiarrak...

Ez. Izen batzuk bakarrik aipatzeagatik, Emeterio Arrese, Pako Aristi, Jimu Iturralde, Martin Ugalde, Xabier Montoia, Rafa Egiguren, Andu Lertxundi, Orixe... ez ziren donostiarrak, baina Donostia hartu zuten kokaleku eta fikzioa garatzeko hiri bezala.

■ Zer du, bada, Donostiak hori gertatzeko?

Donostia eta euskara lotura natural bat da. Kardaberaz "Euskeraren berri onak" liburuan -eta zenbait mende egiten ari gara atzera- bi diskurtso desberdinen eredu azaltzen da: andre bermeotarrarena da bat, eta andre donostiarrarena bestea. Beraz, Donostiak bazeukan eredu linguistikoa bat Euskal Herriari erakusteko modukoa, berezia, graziaduna eta euskararen baliabide guztiak erabiltzen zituena. Geroztik hori ez da eten. Hiri honen kontzientzia euskaraz garatu da neurri handi batean. Jakina, euskara, literatura eta Donostia hartzera, izugarritzko bolumen handiko liburua osatuko genuke. Horregatik hartu dut nik XX. mendea bakarrik. Antzerkia izan ezik, genero guztiak landu ditut. Horrela, euskal literaturaren eboluzioaren eredu bat daukagu. Batez ere poesian garatzen zen neokostunbrismo batetik abiatuta, gero eta prosa alderago jotzen duen literaturarena.